

EKINTZA PLANA

**Espainiako Estatuko polizia
kidegoen gardentasuna eta kontuak
emateko mekanismoak hobetu eta
modernizatzeko**

Ekintza Planean parte hartu duten Adituen Mahaiko kideak (hurrenkera alfabetikoan):

María Nieves Arrese Iriondo, Anja Bienert, Daniel Canales Anzola, Jorge del Cura Antón, Aina Estarellas Roca, Cristina Fernández Bessa, Rocío Fraga Sáenz, Anaïs Franquesa Griso, Iñaki Lasagabaster Herrarte, Sara López Martín, David Martín Abánades, Ignacio Fernández Soto, Matthew McEvoy, Benito Morentín Campillo, Youssef M. Ouled, Laura Pego Otero, Pau Pérez Sales, Ama-deu Recasens Brunet.

Irídia - Giza Eskubideen Defentsarako Zentroko (Siham Jéssica Korriche eta Irene Urango Montilla) eta Novact erakundeko (Serlinda Vigara Mas) taldeen laguntza tekniko eta koordinazioarekin.

Estilo zuzenketa: Gemma Sastre Sancho

Itzultzailea: Nahia Rikarte Urzainki

Sustatzaileak:

Irídia—

NOVACT

Laguntzaileak:



Argitalpen hau Gizarte Eskubide, Kontsumo eta 2030 Agendarako Ministerioaren laguntza finantzarioarekin egin da. Argitalpenaren edukia diruz lagundutako erakundearen ardurapekoa da eskusiban eta ez du, halabeharrez, Gizarte Eskubide, Kontsumo eta 2030 Agendarako Ministerioaren iritzia islatzen.

Aurkezpena

Nazio Batuen Erakundearen 2030 Agendako Garapen Jasangarrirako Helburuak (GJH) direla medio, Estatuak instituzio publiko sendoago, gardenago eta giza eskubideekiko begirunetsuagoak eraikitzeko konpromisoa hartzen dute, pertsona guztien justiziarako sarbide eraginkorra bermatuta (16. GJH). Eskubideak bermatzen dituzten gizarte demokratikoetan, herritarrek bizitza duin baterako behar diren askatasunak eta baldintzak izan behar dituzte, beren eskubideak berdintasunean baliatzeko, instituzioek beren eginkizunak segurtasunez garatzen dituzten aldi berean.

Xede erkide horren aurrean, instituzio publikoek eta, batez ere, beren jardunarekin oinarritzko eskubideen baliatzeari eragiten dioten instituzio publikoek kontuak eman ahal izateko, Estatuak mekanismo modernoagoak jarri behar dituzte abian, baliabide eta independentzia handiagokoak, eta baita legezko eta diziplinazko prozedura askoz ere eraginkor eta gardenagoak ere. Oinarritzko eskubideak erabat bermatzea da helburu erkidea, segurtasun indar eta kidegoek (SIK), legea betearazteaz arduratzen diren funtzionarioak diren heinean, errespetatu eta babestu behar dutena.

Zerbitzari publiko moduan egiten duten jarduketan eta herritarren konfiantza eraikitzeko esparru barruan, polizia kidegoek beren jarduketan berri emateko, beren jarduketak justifikatzeko eta horien erantzukizuna publikoki eta aldi behin hartzeko betebeharra dute, eta gauza bera lortutako emaitzekin ere. Efizientzia, eraginkortasuna, gardentasuna eta legezkoasuna irizpide hartuta, SIKek, era berean, erronka iraunkorrak identifikatu ditzakete, ikaskuntzak jaso eta beharrezkoak diren hobekuntza profesionalak txertatu, Administrazioaren gainerako esparruetan gertatzen den modu berean.

Nazioarteko esparruan, gardentasun mekanismoak eta kontuak emateko mekanismoak ezartzea ezinbestekotzat jotzen da Administrazio publikoaren demokratizazioa ziurtatzeko. Mundu osoko eta Europako giza eskubideen arloko erakunde nabarmenek hala ohartarazi diote Estatu espainiarrari. Horien artean daude Nazio Batuen Giza Eskubideen Batzordea eta Torturaren aurkako Batzordea; exekuzio estrajudizial, sumario edo arbitrarioen inguruko Errelatore Berezia; tortura prebenitzeko Europako Batzordea; eta Europako Kontseiluko Giza Eskubideetarako komisarioa. Era berean, autonomia erkidegoetatik, polizia gainbegiratzeko mekanismoen sorrera sustatu da Euskal Autonomia Erkidegoan eta Nafarroan, erkidegoko zein tokiko polizia kidegoek gauzatutako jarduketak aztertzeke eskumenak baitituzte.

Nazioarteko erakundeak bat datoz gauza batean: kontuak ematea eraginkorra izan dadin, eragile anitzen sistema integrala behar da, elkarri kontrapisua egin eta elkar indartzeko. Sistema horrek barne ditu kontuak emateko barne egiturak, polizia erakunde barrukoak (barne arazoetarako unitateak); Estatuko botereen aurrean kontuak ematekoak, batez ere botere judizialaren aurrean; herritar guztien aurrean kontuak ematekoak; eta gainbegiratzeko kanpoko mekanismoen aurrean kontuak ematekoak.

Uneko erronka horren aurrean eta nazioarteko gomendioak betetzeko ahaleginean, Ekintza Plan honek politika publikoetarako ibilbide orri bat proposatzen die administrazio eskudunei, gardentasun eta kontuak ematearen alorreko gomendio zehatzekin, betiere autonomia erkidego eta Estatuaren arteko eskumenen banaketa errespetatuta.

Proposamen hori lurralde eta lan arlo desberdinetatik (akademikoa, kriminologikoa, poliziala, auzitegi medikuntzarena, juridikoa, giza eskubideena, etab.) datozen esperientzia zabaleko adituekin sortu den lan mahai baten emaitza da. Lan

koordinatu horren ildotik, proposamen honek 36 gomendio ditu barne, hiru gaikako bloketan banatuak: 1) legea betearazteaz arduratzen diren funtzionarioen jarduketak aztertu eta monitorizatzeko kanpoko organo independentea; 2) SIKetako ikerketa eta kontuak emateko barne mekanismoak; eta 3) ikerketa judizialak eta interesdunei arreta ematea, polizia jarduketan esparruan.

Instituzioen eta sozietate zibilaren arteko eztabaida esparrua zabaltzeko eta topagune berriak sustatzea da helburua, giza eskubideen arloko nazioarteko zuzenbidea erabat errespetatu eta betetzen dela bermatzeko behar diren hobekuntzak erdiesteko.



Foto: Luis Kav

BLOKEA 1

**Legea betearazteaz
arduratzen diren
funtzionarioen
jarduketak aztertu eta
monitorizatzeko kanpoko
organo independentea**

1

Estatu espainiarrari egindako nazioarteko gomen-dioak betez, Diputatuen Kongresuak kanpo mekanismo publiko eta independente baten sorrera adostea, legea betearazteaz arduratzen diren funtzionarioen jarduketak aztertu eta monitorizatzeko.

2

Mekanismoa lege propio bidez sortu beharko da, eta polizia zein Barne Ministerioarekiko autonomia izan beharko du araudi, antolaketa, funtzionamendu eta aurrekontuaren aldetik, hartara legitimotasuna eta herritarren konfiantza sendotuta, legea betearazten duten funtzionarioen jardueraren gaineko kontrolen neutraltasun eta objektibotasunari dagokienez. Sortuko den organoa Diputatuen Kongresuaren mendekoa izango da eta hari emango dizkio kontuak, eta interesekotzat jotzen dituen gaien berri emateko gaitasuna izango du, urteko txosten bat aurkezteaz gain.

3

Mekanismoak bere eginkizunak behar bezala betetzeko adinako funtsak izan beharko ditu, eta eginkizun guztiak lege bidez aitortuko zaizkio. Botere legegileak esleituko dio aurrekontua eta publikoa izango da.

4

Mekanismoak arlo hauetako langile espezializatuak izango ditu: giza baliabideak, auzitegi medikuntza, delituen ikerketa, polizia funtzioa, indarraren erabilerari buruzko nazioarteko estandarrak eta bere lana zorrotasunez eta modu independentean gauzatzeko beharrezkoak diren gainerako diziplina guztiak. Gobernu organoa kide anitzeko zuzendaritza batzorde batek osatuko du, eta batzordekideak Diputatuen Kongresuak hautatuko ditu, Gobernuaren eta Poliziaren eraginarekiko independentzia handiena bermatzen duen prozesu zorrotz baten bidez. Hautaketa prozedura horrek hautagaitzak aurkezteko deialdi publikoa egingo du eta diziplina anitzeko hautaketa

batzorde bat osatuko du, sozietate zibileko eta Estatu erakunde nagusietako ordezkariekin. Hautaketa batzordeak hautagaien lehen zerrenda egingo du eta, ondoren, Kongresuak dagokion hautaketari ekingo dio, gehiengo kualifikatuz. Prozedura osoa publikoa, gardena eta merezimendu zein gaitasunetan oinarritutakoa izango da. Presidente batzordea eratu ondoren aukeratuko dute zuzendaritza batzordeko ki-deek eta bost urteko agintaldia izango du.

5

Mekanismoak behar adinako gaitasun, independentzia eta diskrezionalitatea izango ditu, legea betearazteaz arduratzen diren langileen edozein jokabide edo jardunbide ofizioz aztertu ahal izateko, horien ondorioz honako hauek gertatu badira edo gertatu izanaren susmoa badago: heriotza, lesioak, tortura, integritate fisiko edo moralaren aurkako eraso, sexu eraso, bereizkeria, indarraren gehiegizko erabilera edo mekanismoak interesekotzat jotzen duen beste edozein inguruabar. Mekanismoak ondorioztatzen badu kasu baten analisiak delitu bat edo zigor arloko ikerketarako aztergai bat azaleratzen duela, agintaritza judizialari jakinaraziko dio.

6

Mekanismoak banakoen kexa eta salaketak jaso ahalko ditu, eta horiek izapidetzeko aukera izango du, bere mandatu eta araudian xedatutakoaren arabera. Egokitzat jotzen badu, barne arazoetarako unitateei helarazi ahalko die salaketa, eta ikerketa gainbegiratu ahalko du ere. Bere eskumen esparrutik kanpo dauden eta auzipetu ez diren kasuak erregistratu egingo dira eta Arartekoari edo dagokion erakundeari jakinarazi ahalko zaizkio, egoerak hala eskatzen badu.

7

Legez xedatuko da Administrazioek eta legea beteazteaz arduratzen diren funtzionarioek informazio guztia biltzeko betebeharra dutela, bosgarren gomendioan adierazitako kasuetan, eta informazio hori, berehala eta atzerapenik gabe, mekanismoari helarazteko betebeharra ere. Halaber, legez xedatuko da Administrazioek eta legea beteazteaz arduratzen diren funtzionarioek duten mekanismoak eskatutako informazioa eta dokumentazioa emateko betebeharra. Era berean, beharrezkoak diren instalazio, datu, dokumentu, datu base, bideo eta audio grabaketa eta denetariko fitxategietarako sarbidea emango zaio. Legea beteazteaz arduratzen diren funtzionario guztiek ikerketan laguntzeko betebeharra izango dute, zitazioetara bertaratzuz eta beharrezkoak diren datu eta informazio guztiak emanez, betiere beren defentsarako eskubidea kaltetu gabe, haien kontrako zigor arloko prozesurik egotekotan. Betebehar hori betetzen ez bada, desobedientzia zigorra jasotzea gerta liteke, bai administrazio zein zigor arlokoa, larritasunaren arabera. Mekanismoak bere eskaera, gomendio eta ebazpenen betetze maila ezagutzera emateko ahalmena izango du.

8

Mekanismoak aztertutako gertakariak abian den ikerketa judizial baten objektua badira, agintaritzak judizial eskudunari jakinaraziko zaizkio. Mekanismoak kasuaren inguruko dokumentazio administratiborako sarbidea beharko balu edo bertatik bertarako ikuskapenak egin beharko balitu, baimen judiziala eskatuko du alde aurretik. Kasu horietan, mekanismoak modu orokorrean aztertu ahalko du jarduketa polizial zehatza eta txosten bat bidaliko dio agintaritzak judizialari, ikuspegi aditu independente bat emateko. Baimen judiziala jaso duen informazioa eskuratzeko lagunt-

zarik jasotzen ez badu, agintaritza judizialari eskatu ahalko dio agintaritza eskudunari informazioa eman dezan agintzea, egokiak diren ohartarazpenekin eta 7. atalean adierazitako ondoreekin (desobedientzia delitua).

9

Mekanismoak arlo horretako epaitegien jurisprudentzia etengabeko moduan aztertu ahalko du, horien barne direla GEEA eta EBJA. Halaber, jardunbide egokiak eta hobekuntza proposamenak identifikatu ahalko ditu epai irmoa duen kasu baten ikerketa judizialean, eta ikerketen sakontasun eta eraginkortasunari buruzko ondorio eta gomendioak emateko aukera izango du, aurreko 5. puntuaren adierazitako bere mandatuaren araberrako kasuetan. Kontuak emateko sistema integral baten esparruan, nazioarteko estandarrak erabat betetzeko balio behar du analisi horrek.

10

Mekanismo independenteak behar adinako gaitasun eta independentzia izango ditu ikertzen dituen gertakarien inguruko adituen txosten teknikoak egin edo eskatzeko eta txosten horiek agintaritza judizialari helarazteko. Horrekin lortu nahi dena da iritzi aditu independente bat eskaintzea, mekanismoaren ikerketak abian den ikerketa judiziala inola ere oztopatu gabe. Txosten horiek agintaritza judizialak eskatu ahalko ditu ere, kasuaren analisi eta balorazio teknikoaren prozesu barruan.

11

Bere eginkizunen artean, mekanismoak Barne Ministerioak erosi nahi dituen erabilera polizialerako tresna eta armek oinarritzko eskubideen osasunerako eta horiek baliatzeko izango duten inpaktua aztertu eta ebaluatu beharko du, eta tresna eta arma horien egokitasun eta beharra ere bai. Hala ere, horrek ez du salbuetsiko Estatuak duen ebaluazio zorrotza egiteko

erantzukizuna, edozein arma, munizio edo lotutako ekipamendu erabili eta erostea baimendu aurretik. Horrela, mekanismoak txosten bat egingo du dagoneko badiren eta erabiltzen diren tresna eta armen inguruan, kontuan hartuta fabrikatzailearen informazio tekniko, justifikazio operazional eta gomendio guztiak, eta baita Ministerioak berak egindako arrisku analisiak eta azterketa independenteak ere. Gobernuak informazio hori guztia eman beharko dio mekanismoari. Era berean, edozein arma edo tresna erosteko erabakia hartu aurretik, mekanismoak ebaluazio txosten bat egin beharko du derrigorrez, erosketa hori egokia eta beharrezkoa den adierazteko, indarraren erabilerari buruzko nazioarteko estandarrak betetzen dituen egiaztatze eta, egokia denean, arma edo tresnen erregulazioan ezarri beharko diren mugak zehazteko.

12

Mekanismoak uneko protokolo eta prozedura polizialen edukia berrikusi eta ebaluatu ahalko du, giza eskubideen nazioarteko estandarrekin eta arma edo tresnen fabrikatzaileen gomendioekin bat datozen adierazteko, egokia bada. Zentzu horretan, erabilera eta egokitasunari buruzko gomendioak eman ahalko dizkie administrazio eskudunei, eta hobekuntzarako proposamenak ere. 11. puntuan adierazitakoarekin bat, poliziaren arloko administrazio eskudunek eskatzen zaizkien testu guztiak emateko betebeharra izango dute.

13

Beren eginkizunean egindako azterketak ikusirik, mekanismoak jasotako kasuak sistematizatu ahalko ditu, jardunbide egokiak gomendatu, jokabide patrioak identifikatu edo kode deontologikoarekin bat ez datozen edo eskubideak urratu ditzaketen jarduketa errepikakorak antzeman. Indarraren erabilerarako protokoloen prestaketan ere analisi eginkizuna izango

du, eta gauza bera barne arazoetarako unitateek egingo dako txostenetan, polizia operatiboaren ebaluazioan eta indarra erabiltzea saihesteko hartutako neurrietan. Horrez gain, agintaritzaren eskudunei zuzendutako neurri zuzentzaile edo prebentiboak proposatzeko aukera izango du.

14

Urtean behin, mekanismoak jarraipen txosten bat egingo du, hartu diren neurriak eta neurri horien kopurua eta ezartzeko modua adierazteko. Txostena Diputatuen Kongresuari aurkeztuko zaio, Gobernuak eta gainerako erakundeek mekanismoaren mandatuarekin batera onartutako konpromisoak bete dituztela egiaztatuz ahal izateko, botere legegilearen aurrean. Aldi berean, alderdi anitzeko bilerak antolatu ahalko ditu administrazio eskudunekin, proposatutako neurrien ezarpena eta abiaraztea lantzeko. Legez ezarri beharko da mekanismoaren txosten eta ebazpenetan aipatzen diren erakundeek duten erantzuteko betebeharra, eta neurriak bete izana edo bete ez izana justifikatzeko betebeharra. Mekanismoak bere jarraibideen betetze maila publiko egiteko ahalmena izango du, urteko txostenaz haratago.

15

Euskal Autonomia Erkidegoko, Nafarroako eta Kataluniako lurralde parlamentuek, segurtasun arloan eskumen zabalak eta polizia kidego propioak izanik, kanpoko organo independente bat beharko dute ere, gorago adierazitako baldintzak betetzen dituen eta lurralde eta polizia kidego bakoitzaren berezitasunetara moldatzen dena. Katalunian organo hori oraindik ere egiteke dago. Aldiz, Euskal Autonomia Erkidegoan, uneko Kontrol eta Gardentasun Batzordea berrikusi beharko da eta, Nafarroan, Jardunbide Egokien

eta Gardentasunaren Batzordea sortzean (Nafarroako Polizien Foru Legean aurreikusi dena), hemen adierazitako xedapenak betetzen direla egiaztatu beharko da.



Foto: Bru Aguiló

BLOKEA 2

**Segurtasun indar eta
kidegoen ikerketarako eta
kontuak emateko barne
mekanismoak**

16

SIK guztien barne arazoetarako unitateen mekanismo eta funtzionamendua berrikustea. Giza eskubideetan prestakuntza egokia duten langile eta agenteek osatu beharko dituzte unitate horiek, eta kidegoaren gainetarako sailek dutena baino autonomia eta hierarkia maila handiagoa izan beharko dute, lan independente eta zorrotza egiten dutela bermatze aldera.

17

Barne Ministerioaren eta organo judizialen arteko lan-kidetza protokolo bat ezartzea, SIKetako barne arazoetarako unitateei legea betearazteaz arduratzen diren funtzionarioei eragiten dieten zigor arloko ikerketa guztiak jakinarazteko. Era berean, barne arazoetarako unitateek behar duen informazio guztia emango diote monitorizazio eta analisiak arduratzen den kanpoko mekanismo independenteari, sortzen denean.

18

Herritarrei eta giza eskubideen defentsarako erakunde zuzendutako indarkeria instituzional espezifikoko egoerak salatzeko bide bat ezartzea, behar bezala eta azkar jarduten dela ziurtatzeko, hartara froga babestuz. Bide hori ezingo da izan bestelako egoerak salatzeko erabiltzen den kanal orokor bera, honelako kasuistikek berezitasun zehatzak baitituzte. Salaketa horiek ezagutu eta izapidetu beharko ditu ere, beren eskumenen arabera, uneko Giza Eskubideak Bermatzeko Bulego Nazionalak.

19

Lan metodologia garden bat eta kontuak zuzenean emateko prozedura bat ezartzea, mekanismo horien aldetik, dagozkien ordezkarien ganbera, udaletako osoko bilkura eta arartekoen aurrean. Ondore horretarako, Poliziaren zuzendari nagusiak, kidegoko buruak eta barne arazoetarako unitateen arduradunek beren jarduketan urteko txostenak egin beharko dituzte, dagozkien barne arazoetako parlamentu batzorde edo

udaletako osoko bilkuren aurrean aurkeztuko dituztenak eta egokiak diren konfidentzialtasun erreserbekin argitaratuko direnak. Argitalpen horiek SIKe-tako kideen edozein jokabide edo jardunen ondorioz abiarazitako barne prozeduren datu desagregatuak eskainiko dituzte, eskubideen urraketa posible baten inguruko kezarik egon bada edo mota hauetako kasu bat izan badaiteke: integritate moralaren aurkako erasoak, heriotza, torturak, sexu askatasunaren aurkako erasoak, lesioak, indarraren gehiegizko erabilera, bereizkeria eta/edo legearen aurkako atxiloketa. Kexa, salaketa, kondena eta zigorren kopurua eta zigor motak ere jaso beharko ditu; bai eta hartutako kautela neurrien kopurua eta diziplinazko prozeduren emaitza ere, horren barne direla gertakarien ildotik kidegotik kanporatu diren agenteen kopurua eta agente horien unitateak. Hori guztia, segurtasun kidegoen jarduketak monitorizatu eta aztertzeke mekanismo independentearen sorrera kaltetu gabe.

20

Komisariatetan grabatutako irudiak sei hilabetez automatikoki gordetzeko mekanismo bat ezartzea. Atxilotutako pertsonak gordetzen diren espazio guztietan edo sarbide publikoa duten espazio guztietan, bideozaintza egon beharko da, horren barne direla ezaupide eta identifikazio gelak. Halaber, puntuitsuak zein ikusgarritasunik gabeko eremuak desagerrarazi beharko dira, askatasunik gabeko pertsonen intimitatea errespetatzen den aldi berean. Bereziki garrantzitsua da miaketak egiteko erabiltzen diren gelek irudi eta soinu grabaketa izatea. Halaber, atxilotuak lekualdatzeko erabiltzen diren polizia ibilgailu guztiek irudiak hartu, jaso eta gordetzeko sistema bat izan beharko dute, istiluen aurkako unitateen furgonetetan ere, batzuetan horrelako lekualdaketa egiteko ere erabiltzen

baitira. Irudiak atzitu eta gordetzeaz arduratzen diren sistemak manipulazioak eta ezabaketak galarazteko modukoak izango dira, eta mekanismo independenteengana joko da eskusiban haren eskumeneko kasuak direnean.

21

Kanpo auditoria bat egitea, adituen eskutik eta giza eskubideen, arrazakeriaren aurkako eta LGTBQ+ arloetako erakunde eta elkarteen parte hartzearekin, polizia hautaketarako mekanismoak eta etnia-arraza profilaren zein generoaren arabera bereizkeria aztertzeke.

22

SIKen jarduketetan bereizkeria etniko-arrazialaren aurkako protokolo bat onartu eta abian jartzea, profil etniko-arrazialaren arabera identifikazioak bezalako jardunak debekatu eta desagerrarazteko.

23

Gelditze, identifikazio eta erregistro inprimakien moduko jarduteko tresnak txertatzea, bertan jasota gera daitezen jarduketaren justifikazio argi eta arrazoitua, amaierako emaitza eta agentearen etnia-arraza pertzepzioa zein interesdunak bere buruari buruz duena, betiere baimen informatuaren eta konfidentzialtasunaren printzipioei jarraiki. Inprimakia interesdunari eta Segurtasunaren Estatuko Idazkaritzari helarazi beharko zaie. Inprimaki horiek sozietate zibilaren eta pertsona arrazializatuen kolektiboekin batera diseinatu beharko dira.

24

Erabilera publikoko urteko memoria bat egitea, lurraldeka banatutako emaitza guztiekin eta behar diren aldaketak ebaluatzeko aukerarekin, emaitzek profil etniko-arrazialaren arabera hautaketa egon dela adierazten badute.

25

Polizia kidegoen gardentasun politika arlo horretako nazioarteko estandarretara egokitzea, indarra erabiltzeko protokoloak argitaratzen direla ziurtatuz, herri-tarrek erabilera hori ezagutu eta fiskalizatzeko behar den neurrian. Oro har, segurtasun nazionalak ez luke SIKen jarduketan ezaguera oztopatu behar.

26

Indarraren gehiegizko erabilera egiten duten SIKetako agenteen uniformean (istiluen aurkako unitateak) beharrezkoak diren aldaketak egitea, identifikazio zenbakia ikusgarria eta erraz gogoratzeko modukoa izan dadin –bai tipografiaren zein zenbaki eta tamainaren aldetik– 360 gradutatik: ikusgai dauden piezen aurrealdean eta atzealdean agertu behar da, eta kasu koaren aldamenetan.

27

Erabilera polizialeko tresna eta arma guztien azterketa bat egitea, egokiak direla eta giza eskubideen esparruko nazioarteko estandarrak betetzen dituztela egiaztatzeko, eta estandarrak betetzen ez dituztenak kentzea. Era berean, erabiltzen direnen kasuan, erabileraren trazabilitatea bermatu behar da, jaurtigaien seriazioari eta hilgarriak diren armak erabiltzean egingo diren txosten xehatuei esker. Analisi eginkizun hau betetzen duen kanpoko mekanismo independente bat sortu artean, Kongresuko Barne Arazoetako Batzordean, dagozkien Udaletako osoko bilkuretan eta, egokia bada, arloan eskudunak diren autonomia erkidegoetako parlamentu batzordeetan jorratu behar da auzia. Txosten horiek egiteko, Barne Ministerioak armari buruzko informazio tekniko guztia jarriko du eskura, horren barne direla fabrikatzailearen gomen-dioak edo Ministerioak berak egindako azterketa independenteak.



Foto: Álvaro Minguito

BLOKEA 3

**Ikerketa judizialak eta
interesdunei arreta
ematea, polizia jarduketan
esparruan**

28

Indarkeria instituzionalean espezialista den fiskaltza bat sortzea, eskubideen urraketa posible bat eragin duten SIKen edozein jokabide edo jardunekin lotutako prozesu guztiak gainbegiratzeko. Bereziki, legea betearazteaz arduratzen diren funtzionarioek eragindako heriotzak, integritate moral eta/edo fisikoaren aurkako erasoak, torturak, sexu askatasunaren aurkako erasoak, indarraren gehiegizko erabilerak, bereizkeria eta/edo legearen kontrako atxiloketak. Halaber, prozesu horietan esku hartze proaktiboa izatea, biktimek eskubideak defendatzeko.

29

Estatuko Fiskaltza Nagusiaren urteko memorian, “Tratamendu espezifikoak duten intereseko auziak” kapitulu barruan, torturaren eta bestelako tratu krudel, zital edo apalgarrien esparruan jarraitzen diren prozedurei buruzko informazioa txertatzea, eta tortura eta/edo tratu txarrekin lotutako delituak biktimek aurkeztutako salaketa kopuruaren (Espainiako Zigor Kodearen barruan, funtzionarioek eta agintari publikoek eragindako heriotza delituak, tortura eta tratu txarrak, integritate moralaren aurkako delituak, sexu indarkeria, lesioak, legearen aurkako atxiloketak eta tortura prebenitzeko betebeharra ez betetzea) eta Fiskaltzak delitu horien inguruan abiarazitako ikerketa eta/edo auzipetzeen kopuruaren arteko alderaketa xehatua argitaratzea. Era berean, atal horretan bertan, aipatu delituekin lotutako bereizkeriagatiko asuntzuetan aplikatzeko eskaerei buruzko datu desagregatuak adieraztea

30

Indarkeria instituzionalari buruzko ofiziozko txanda berezi eta doakoa sortzea, esparruko profesional espezializatuekin, funtzionario publikoek edo eginkizun publikoak betetzen ari den edozein pertsonak eragindako, haiek bultzatutako edo haien baimen edo onar-

penarekin egindako heriotza, integritate moralaren aurkako eraso, tortura, sexu askatasunaren aurkako eraso, lesio, indarraren gehiegizko erabilera, bereizkeria eta/edo legearen aurkako atxiloketa kasuetan arreta emateko.

31

Ofiziozko txandako epaile, fiskal eta abokatuei eta bestelako eragile juridikoei prestakuntza espezifikoa ematea, arlo hauetan: giza eskubideak; indarraren erabilerari buruzko printzipio, araudi eta nazioarteko estandarrak; ikerketa xehatu eta eraginkorrak bermatzeko moduak; kidego polizialen funtzionamendua; eta legea betearazteaz arduratzen diren funtzionarioen jarduketak.

32

Nazio Batuek Estatu espainiarrari behin baino gehiagotan ohartarazitakoa betez, Gobernuak tortura delituaren berriazko definizioa txertatzea, [Torturaren aurkako Hitzarmenean](#) ageri dena, eta indarraren erabilera arbitrario edo abusuzkoaren delitua aitortzea, [legea betearaztearen ardura duten funtzionarioek indarra eta su armak erabiltzeari buruzko oinarritzko printzipioetako](#) 7. atalean xedatutako printzipioari jarraiki.

33

Nazioarteko zuzenbidea eta torturaren erabateko debekua errespetatzea, legea betearazteaz arduratzen diren funtzionarioei indultuak eman gabe kasu hauetako batean kondena jaso badute: heriotza, integritate moralaren aurkako erasoak, torturak, sexu askatasunaren aurkako erasoak, lesioak, indarraren gehiegizko erabilera, bereizkeria eta/edo legearen aurkako atxiloketak.

34

4/2015 Legea, apirilaren 27koa, Delituaren Biktimaren Estatutuarena, aldatzea, legea betearazteaz arduratzen diren funtzionarioen eskutiko heriotza, integritate moralaren aurkako eraso, tortura, sexu askatasunaren aurkako eraso, lesio, indarraren gehiegizko erabilerak, bereizkeria eta/edo legearen aurkako atxiloketa kasuetako biktimen erreparazioa berariaz aurreikus-teko, eta ofiziozko prozedura bultzatzeko derrigortasuna xedatzeko.

35

Tortura eta tratu txarren biktimentzako laguntza publikoak araudian aitortzea eta aurrekontuan zuzkitzea, suspertze integral eta egokitu baterako jasangarritasun eta independentzia ekonomikorako mekanismo bat ziurtatuz, [delitu eta botere abusuaren biktimentzako funtsezko justizia printzipioei buruzko adierazpena](#) betez.

36

Tortura eta tratu txarren biktimentzako kalte ordainen baremo bat ezartzea, horrelako erasoen ondoriozko kalte fisiko eta psikiko espezifikoak kontuan hartuta.

Adituen Mahaiko kideen aurkezpena

María Nieves Arrese Iriondo, Zuzenbidean doktorea eta UPV/EHUko Zuzenbide Administratibo, Konstituzional eta Zuzenbidearen Filosofia Departamentuko irakaslea. UPV/EHUren “Polizia, esku hartze administratiboaren formak, herritarren segurtasuna eta oinarrizko eskubideak” proiektuko zuzendarietako bat da.

Anja Bienert, Herbeheretako Amnistia Internazionala erakundeko Polizia eta Giza Eskubideak programako goi mailako arduraduna, eta Amnistia Internazionalen posizionamendu globalen erreferentea poliziaren esparruan.

Daniel Canales Anzola, Espainiako Amnistia Internazional erakundeko arduraduna, giza eskubideetan eta justizia trantsizionalean aditua.

Jorge del Cura Antón, Torturaren Aurkako Elkarte (Asociación contra la Tortura edo ACT) elkartearen sortzaile eta presidente ohia. Elkarte hori herri akusazio moduan aurkeztu zen zenbait prozedura judizialean, besteak beste, Askapenerako Talde Antiterroristak (GAL) edo Lasa eta Zabalaren kasua. Tortura Prebenitu eta Salatzeko Koordinakundeko (Coordinadora para la Prevención y Denuncia de la Tortura edo CPDT) kidea.

Aina Estarellas Roca, auzitegi medikua, Kataluniako Auzitegi Medikuntza eta Zientzia Forentsetako Institutuko zuzendari ohia. Irídia - Giza Eskubideen Defentsarako Zentroko presidentea.

Cristina Fernández Bessa, Zuzenbidean doktorea, kriminologia irakaslea eta doktorego ondoko ikertzailea (Ramón y Cajal) A Coruñaako Unibertsitateko ECRIM (Kriminologia, Psikologia Juridikoa eta Justizia Penala XXI. mendean) taldean. COST CA17102 - Police Stops (POLSTOPS) ekintzako zuzendaritza batzordeko kidea (2018-2022).

Rocío Fraga Sáenz, soziologoa, ikerketa sozialeko metodologia kualitatiboetan eta partaidetzako ekintzen ikerketan aditua. Segurtasun eta Arriskuen Kontrolean graduduna. Berdintasunerako teknikari moduan aritzen da sektore pribatuan, eta ikerketan laguntzeko teknikari moduan A Coruñaako Unibertsitatean. Han, segurtasun publikoko politiken ikerketan laguntzen du. A Coruñaako Udaleko berdintasun eta dibertsitate zinegotzia izan zen 2015etik 2019ra, herritarren segurtasun arloko eskumenekin.

Anaïs Franquesa Griso, abokatu, zuzenbide penalean aditua, Irídia erakundeko zuzendaria eta tortura edo tratu txarren moduko giza eskubideen urraketa larrietarako litigazio estrategikoan espezialista. Gaur egun, United Against Torture Consortium (UATC) ekimenaren esparru barruan sortu zen Working Group on torture and other ill-treatment in the context of protests and other assemblies taldeko kide da.

Iñaki Lasagabaster Herrarte, UPV/EHUko administrazio zuzenbideko katedradun emeritua. “Oinarrizko Eskubideak eta Botere Publikoak” Doktorego Programaren eta Giza Eskubideak eta Botere Publikoak Masterraren zuzendari izan da. Euskal Autonomia Erkidegoko Arbitraje Batzordeko kide izan zen, eta Comentario al Convenio Europeo de Derechos Humanos lanaren zuzendari ere (4. edizioa). Gaur egun, UPV/EHUren “Polizia, esku hartze administratiboaren formak, herritarren segurtasuna eta oinarrizko eskubideak” proiektuko zuzendarietako bat da.

Sara López Martín, abokatua, errepresioan eta torturan aditua, Centro Sir[a] erakundeko sail juridikoaren burua eta Comisión Legal Sol batzordeko kidea.

David Martín Abánades, Fuenlabradako (Madril) Udaltzaingoko inspektorea. Identifikazio Polizial Eraginkorrerako Programa (PIPE) pilotua abiaraztearen arduraduna izan zen. Kulturarteko Hiriak programaren esparru barruan egindako hurbileko poliziarri buruzko Europako Kontseiluaren eskuliburuaren egilea da.

Ignacio Fernández Soto, Madrilgo Probintzia Auzitegiko epailea. Zigor arloko 30. sekzioa. Jueces por la Democracia erakundeko kidea.

Matthew McEvoy, ikerlaria. Omega Research Foundation fundazioaren Latinoamerikako lanaren zuzendaria. Bere eginkizunen artean daude, besteak beste, indarraren erabilera dokumentatu eta auzipetzeko prestakuntza eta laguntza teknikoa, horren barne direla “hain hilgarriak ez diren” armak, indarraren erabilerari buruzko araudiaren ikerketa eta bilera zein manifestaldien esparruan erabiltzen diren ekipamendu polizialen dokumentazioa.

Benito Morentín Campillo, Auzitegi Medikuntzako Euskal Institutuko auzitegi mediku titularra eta Bizkaiko Patologia Forentse Zerbitzuko burua. Eusko Jaurlaritzaren giza eskubideen urraketak jasan dituzten biktimei errekonozimendua eta erreparazioa emateko Balorazio Batzordeko kidea.

Youssef M. Ouled, kazetaria eta arrazismoari buruzko ikerlaria. Bereizkeriaren aurkako departamentuko burua Rights International Spain erakundearen. Koordinatzailea AlgoRace-en, adimen artifizialak biztanleria arrazializatueta duen inpaktua aztertzen duen erakundea.

Laura Pego Otero, Zuzenbidean doktorea, Euskal Kriminologia Institutuko ikerlaria eta Zigor Arloko Zuzenbide eta Bikti-

mologia irakaslea Euskal Herriko Unibertsitatean. *Nafarroako tortura eta tratu txarrei buruzko ikerketa 1979tik gaur arte txostenaren zuzendaria.*

Pau Pérez Sales, Psikiatrian doktorea eta Grupo de Acción Comunitaria - Centro de Recursos en Salud Mental y Derechos Humanos erakundeko koordinatzailea. Tratu txarren eta torturaren biktimei arreta emateko Centro Sir[a] erakundeko zuzendari klinikoa. Torture Journal aldizkariko argitaratzaileen burua. Tratu txar eta torturaren biktimentzako auzitegi nazional eta nazioarteko auzitegieta peritua (1996az geroztik).

Amadeu Recasens Brunet, Zuzenbidean doktorea eta kriminologoa. Kataluniako Polizia Eskolako eta Justizia eta Barne Ministerioaren Barne Arazoetako Estatu Idazkaritzako Azterlan eta Prospektiba Kabineteko zuzendari izan zen. Segurtagarun arloko aholkularitza eman die Nazio Batuetako erakundeei, Europar Batasunari eta Europako Kontseiluari, eta Europako Poliziaren Etika Kodearen idazleetako bat izan zen. Bartzelonako Udaleko Segurtagarun komisarioa (2015-2019) izan zen, eta INTERPOLeko Auzi Etikoen Batzorde Iraunkorreko kide.



Foto: Borja Lo

iridia.cat | novact.org